

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

Batzarraren AKTA.

2016ko urriaren 20a – 17:30 h

BERTARATUAK

Koldobika Narbaiza (Euskara eta Hezkuntzako zinegotzia, presidenteordea)
Marta Ajuria (Ekonomia eta Ogasuneko zinegotzia)
Ainara Aretxabaleta (EAJ-PNV udal taldea)
Alba Fatuarte (EH-Bildu udal taldea)
Inés Ibáñez de Maeztu (PSE-PSOE Udal taldea)
Amaia Arenal (Udalberri Udal taldea)
Xabier Otxandiano (Garapen Ekonomiko, Merkataritza eta Enpleguko zinegotzia)
Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria)
Ana de Castro (Bizkaiko Foru Aldundia)
Libe Agirre (kazetaria)
Adolfo Arejita (Euskaltzaindia)
Olatz Elgea (Bilbao Dendak)
Jokin Gorozika (Labayru Fundazioa)
Jon Maguregi (Bilboko euskaltegiak)
Xabier Monasterio (kultur eragilea)

EZIN ETORRIA ALDEZ AURRETIK ADIERAZI DUTE

Juan María Aburto (Bilboko alkatea, presidentea)
Nekane Alonso (Kulturako zinegotzia)
Jesús Sanz Salamanca (PP udal taldea)
Genar Andrinua (Athletic Club)

EZ BERTARATUAK

Alexander Arauzo (GOAZEN BILBAO udal taldea)
Jon Simón Gartzia (Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Saila)

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILERAREN (2016-06-08) AKTA ONARTU.

Aurreko bileraren **akta onartu egin da**. Baina kide guztiak ez direnez ados egon aurreko bileraren aktarekin, bozkatu egin da eta **akta onartzearen alde 13** kide agertu dira eta **onartzearen kontra bat**, Alba Fatuarte. Alba Fatuarte nahi du, batetik, aktak zehaztea nork egiten duen proposamen bakoitza eta, bestetik, ez du aktan islatuta ikusten berak aurreko bileran esandakoa.

2.- BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEARI EGINDAKO EKARPENAK SARTU ETA ARAUDIA ONARTU.

Proposamen bat egon da, Jesús Sanzena: Gobernu kide bat egon behar dela batzorde bakoitzean. **Ekarpen hori Araudian sartu da** (10. artikulua, 4. puntua).

Araudia onartu egin da. Baina kide guztiak ez direnez ados egon, bozkatu egin da eta **Araudia onartzearen alde 12** kide agertu dira, **bat abstenitu egin da** (Amaia Arenal) eta **beste batek kontra bozkatu du** (Alba Fatuarte). Amaia Arenalen ustez, Batzordeak instituzioetako ordezkari gehiegi ditu eta falta dira gizartearen eta kulturaren ordezkari gehiago. Alba Fatuarte hiru arrazoi eman ditu bere botoa azaltzeko: Batzordea erabakigunea ere izan beharko litzatekeela, Batzordeko ordezkariak orekatuagoa (instituzioak eta euskalgintza) izan beharko litzatekeela, eta aurrekontuen inguruko eztabaida bat ere egon beharko litzatekeela.

3.- AHOLKU BATZORDEAREN JARDUEREN PROPOSAMENA EGIN ETA 2016-2017KO AZPIBATZORDEEN SORRERA, HELBURUAK ETA OSAERA AZALDU.

Bilbao Metropoli-30 elkarteko Idoia Postigok azaldu du hemendik aurrera **Bilbao Metropoli-30** elkartea eta **Labayru Fundazioa arduratuko** direla **Batzordea dinamizatzeaz eta prozesua estrategikoki koordinatu eta kudeatzeaz**.

Labayru Fundazioko Lander Solozabalek hauek azaldu ditu:

BATZORDEA

- **Helburuak:** 1) foroa eta elkargunea izan, 2) ESEPen inguruko ekarpenak eta kontsultak egin, 3) urteroko planaren jarraipena egin, eta 4) bestelako gai zehatzak landu.
- **Kronograma:** gaurkoaz gain, 2017an bi aldiz batuko da, maiatzean eta abenduan.
- **Zereginak:** azpibatzerdeen aurrerapenak ebaluatu, onartutako ekarpenak martxan jarri, eta pausu berriak proposatu.

AZPIBATZORDEAK (*Euskaltegiak, Hedabideak, Euskalgintza*)

- **Azpibatzerdeen buruak:** Nekane Alonso (*Euskaltegiak*), Inés Ibañez de Maeztu (*Hedabideak*) eta Xabier Otxandiano (*Euskalgintza*)
- **Kronograma eta zereginak:**
 - 2016aren amaieran, bisio estrategikoa definitu
 - 2017aren hasieran, helburuak definitu
 - 2017aren erdian, ekintzak proposatu
 - 2017aren amaieran, ebaluatu eta neurtu

Hau dena **proposamen irekia** da eta azpibatzerdeetan beste eragile batzuk egon daitezke, edo beste azpibatzerde batzuk martxan jarri, beharrezkoa izanez gero.

Proposamen bat egon da, Jesús Sanzena: *Hedabideak* azpibatzerdean El Mundo sartzeara. Hala ere, El Mundo-k Bilbon delegaziorik ez duenez, proposamena ez da onartu.

Alba Fatuarte esan du *Hedabideak* azpibatzerdean uriola.eus falta dela eta *Euskalgintza* azpibatzerdean hauek falta direla: Ttanttaka, Iralako euskal txokoa, Euskal Herrian Euskaraz, eta, agian, Topagunea. Horretaz gain esan du, bere ustez, *Euskalgintza* ez dela izenik egokiena azpibatzerde horrentzat, eta hobeto dagoela *Euskara elkarteak* izena.

4.- AHOLKU BATZORDEAK LORTU BEHARREKO HELBURUEN BISIO ESTRATEGIKOA AZALDU.

Helburu hau lortzeko, **lan-dinamika zehatz bat** proposatu da: batzordekideek, irudi iradokitzaileak erabilia, adieraziko dute nolako egoera bisualizatzen duten etorkizunera begira, euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegitik. Argazkiak edo irudiak norberak aukeratu ondoren, taldeka jarri dira azalpenak emateko eta, azkenik, taldeetan esandakoa azaldu da denon aurrean. Elementu hauek agertu dira dinamikan:

Erreferente bihurtzea	Ezberdintasuna lotzea	Kemena, adorea
Konparaketa	Elkargunea,	Emakumearen zeregina
positiboak	bateragunea	Kulturartekotasuna
Jatorri	Euste gunea	Integrazioa
desberdintasuna	Teknologia	Bidea pausoz pauso
Elkarlana	Abilidadeak	egitea
Aniztasuna	Gizartean txertatzea	Gizartean sartuta
Kohesio lana	Ekonomia	Gogoa
Esparru aniztasuna	aurrerakuntza	Harremanak
Pluraltasuna	Protagonismoa	Erritmoa.
Baloreak	Ahalegina	Koordinazioa
Iragana eta geroa	Tradizioa	Konponbidea.
Duintasuna beste	Oinarria	Elkarlana
hizkuntzekin	Erakunde guztiak	
Arrakasta	Elkarlana	
Tresna		

Lortutako osagaiak zeintzuk izan diren eta zer nolako garrantzia izan duten kontuan hartuta, hauek izango dira Bilboko Euskararen Aholku Batzordearen lana gidatuko duen etorkizuneko bisioaren ezaugarriak:

- **Aniztasuna**: pluraltasuna, ezberdintasuna, kohesioa, integrazioa, kulturartekotasuna, eta harremanak izateko gaitasuna.
- **Elkargunea**: bateragunea, gizartean txertatuta, esparru guztietan.
- **Denbora**: Iragana (tradizioa) eta geroa (modernitatea).
- **Baloreak**: identitatea.
- **Tresnak**: teknologia eta ekonomia.
- **Ahaleginak**: elkarlana, eusteko gunea, kemena, adorea, eta protagonismoa.
- **Prozesua**: bidea, pausoz pauso, erritmoa, irtenbidea, eta arrakasta.

5.- GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK.

Kide batzuek esan dute garrantzi handikoa dela **euskara merkataritzan ere sustatzea eta zaintzea**, batez ere denden izenetan eta errotuluetan. Proposatu da gai hori lantzeko azpibatzerde bat sortzeko, eta Udalak errotuluak euskaraz (ere) jartzeko laguntzak eta erraztasunak emateko. Gai horrekin lotuta, proposatu da langileei “Badakit euskaraz” karteltxoak banatzeko, lanpostuetan jar ditzaten. Eta esan da Eusko Jaurlaritzaren txantxangorriaren irudiaren helburua hori ere badela.

Kide batzuek esan dute, batzuetan, **kalean antolatzen diren zenbait jarduera pribatutan ez dela errespetatzen udal araudia**, esaten duena testu guztiak euskaraz ere egon behar direla. Egoten diren kexak jaso eta bideratzen ditu Udalak, baina gehiago ezin du egin, ez bada diskriminazio positiboa landu.

Kide guztiei liburuxka bana eman zaie, **Bilboko Udalaren Erabilera Planaren** ingurukoa. Bertan zehatz agertzen da azalduta zein den euskararen egoera Udaleko langileen artean.

Bilbon, 2016ko urriaren 20an

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA

Jose Joakin Gallastegi Villanueva